

DIEGO GOMEZ XIII

ORGANO ZIKLOA

2020KO ABUZTUAREN 18TIK 28RA

Abuztuaren 18an, 19:30ean

Organoa: Loreto Aramendi

Sarah Perarnaud

Biolontxelo: Dorota Komorowska

Donostia



Abuztuaren 21ean, 19:30ean

Organoa: Juan San Martín

Zaragoza



Abuztuaren 25ean, 19:30ean

Organoa: Arturo Barba

Valentzia



Abuztuaren 28an, 19:00etan

Organoa: José Luis Echechipía

Biolina: José Ignacio Ayerra

Iruñea



Jarraian, elkarretaratzea artistekin

Kortzentuen ordu bat lehenago Elizari bisita gidatua
eginpo zaio

Larragako San Miguel Arcángel Elizan

Zuzendari teknikoa: Jesús M^a Muneta

Laguntzen du

Parroquia de
San Miguel Arcángel



Villa de Larraga

CONSERVATORIO PROFESIONAL DE MÚSICA
PABLO SARASATE
EL CORAZÓN DE LA MÚSICA



AMUDEA
Asociación de Mujeres de Larraga



Síguenos en
Facebook

Antolatzen du



ASOCIACIÓN MUSICAL

Diego Gomez XIII

Babesten du

Diruz laguntzen du



Ayto. Larraga



F. SUESCUN CONSTRUCCIONES



FUNDACIÓN
CAJANAVARRA

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

“DIEGO GOMEZ” XIII. ORGANO ZIKLOA

Aurkezpena

Abuztuko bigarren habamabostaldi hau berezia da. Birus kaltegarri batek mundu osoko lan-jarduera zein jarduera artistikoa eten egin ditu. Mundu honen zatia garen heinean, ez dugu etsi. Testuinguru honek ahalbidetzen dizkigun bitartekoen bidez, oso diziplinatuak izanik, lau kontzertu eskaintzera konprometitu gara, bertako eta hemengo organozaleok Diego Gomezek eraikitako musika-tresnak oparituko digun musikaz goza dezagun. Elizaren zabalerak elkar ez eragozteko bermatuko du. Hemen, Errenazimentu eta Barrokoko lehengo eta egungo europar eta espainiar egileen musikariek hoberena entzungo dugu. Musika hau, kontzertu bakoitzerako berriaz konposatu da, ganbera-musikarako, bakarlari, edo bi interpretatzaile edo gehiagorentzat. Hau, gogoia eta izpiritua sendatzen duen ordu bateko entzunaldia izango da.

Interpretatzaileak ez dira hasiberriak, profesionalak baizik. Goi mailako musika kontserbatorio ezberdinetan edo musika fakultateetan lortutako curriculum bikainak dituzte, musika-tresna historiko eta berriak jo izan den teklatu-tako lan ekoizpen handiarekin. Organo-jotzaile, irakasle eta kontzertu-emale eraginkorrak dira: Loreto Aramendi, bere alaba Sarah eta Dorota Komorowska poloniar biolontxelo-jotzailea. Lehen mailako bi organo-jotzaileak: Pilarreko eta Zaragozako katedraleko Juan San Martín eta Europar kontzertu anitz eskaintzen ari den Arturo Barba, Valentziarra. Azkenik, bikote nafarra: Leireko monasterioko organo-jotzaile titularra den José Luis Echechipia eta José Ignacio Ayerra biolin-jotzailea.

Testuinguru honetan, kontzertua une normala eta gogobetegarria izateko helburua izanda alde batetik, eta araudia betez, bestetik, musikaz gozatzea ahalbidetuko duen errezitaldia antolatu nahi izan dugu. Ugari dira lau kontzertu hauetatik igaroko diren egileak: bakarlarrietako bi, eta ganbera-musikako beste bi, gure zazpi kontzertu-emaleen eskutik. Frantziar, alemaniar, italiar eta espainiar egileen zenbait lan entzuteaz gain, XIII. Ziklo hau eta Diego Gomezaren organorako idatzitako lauzpabost konposaketa berri ezagutzeko aukera ere izango dugu.

Ziklo hau posible egiten duten erakunde guztiei eskerrak eman nahiko genizkeke: Nafar Gobernua, Caja Navarra Fundazioa, Larragako Udala, Florencio Suescun Eraikuntzak, San Miguel Eliza. Diego Gomez elkarteko kideak ere eta hauekin batera, pandemiari dagokion protokoloak fruituak eman ditzan lanean dabiltzanak ere gogoan ditugu. Larragako Diego Gomez XIII. Organo Zikloak eskaintzen dizkigun musika bikaina eta artistez goza dezazuela.

Jesús M^a Muneta

Zikloaren zuzendari teknikoa eta musikagilea.

Larragako seme kutuna

Teruelen, 2020ko uztailearen 26an

EGITARRAUA – 2020/8/18

LORETO ARAMENDI - SARAH PERARNAUD DOROTA KOMOROWSKA

Antonio Vivaldi (1678 - 1741) - Organoa eta biolontxelo

Folías

G. Haendel (1685 - 1759) - Organoa eta biolontxelo

Lacia chio pianga

M. Corrette (1707 - 1795) - Organoa

Ou s'en vont ces gays bergers

Tambourins

A la venue de Noël

Jesús M^a Muneta (1939) – Organoa eta biolontxelo – Estreinaldi absolutua

Biolontxelo eta organorako triptikoa. Op. 452

Moderato

Andante

Allegretto

F. Correa de Arauxo (1586 - 1654)

Segundo tiento del quarto tono

Jesús M^a Muneta (1939) – 2 organo-jotzaile txandakatzen (ama eta alaba)

Gran salmodia op.841 **Estreinaldi absolutua**

Hugo Distler (1908 - 1942) - Organoa

Thirty Pieces Op. 18/I (5 ataleko laburpena)

Julien Bret (1974) – Organoa lau eskutan

Sonate Parisienne, 4 eskutako organorako.

Jesús M^a Muneta (1939) – 2 organo-jotzaile (ama eta alaba) - Estreinaldi absolutua

Postludio op. 842



KONTZERTU-EMALEEN CURRICULUMA

Loreto Aramendi

Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikako Cavillé Coll (1863) organoaren jotzaile titularra eta nazioarteko kontzertu-emalea. Errezitaldi ugari eskaini du nazioarteko jaialdi ezberdinetan: Estatu Batuetan, Japonia, Argentina, Kanada, hainbat europar herrialdetan (Madrilgo Auditorium Nazionalea, Pariseko Notre-Dame, Reykjavikeko Hallgrímskirkja, Westminsterreko abadia, Norvegiako Stavangerreko Auditoriuma...) besteak beste.

Koruko Andre Maria eta Saint Ouen de Rouengo Abadiako Cavillé-Coll organo bikainetan grabatutako bi disko bikoitza plazaratu ditu, azkeneko hau, Louis Robilliarden transkripzioekin.

Organogintzaren munduan interesa zuelarik, eremu honetan sartu zen, hainbat konponketa eta zaharberritze proiektutan parte hartzen.

Orion jaioa, Donostiako kontserbatorioan ikasi zuen. Bertan, piano, klabezin, organo eta ganbera—musikako goi tituluak eskuratu zituen, Loreto F. Imaz, Esther Mendiburu eta Cristina Navajasekin.

Baionako Eskualdeko Kontserbatorioan, Bernadette Carrau eta Esteban Landart irakasleekin organoa ikasi zuen, Urrezko Domina eta Lehenengo Saria eskuratu Hobekuntzako zikloaren bukaeran.

Lyongo Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean (C.N.S.M.D) Jean Boyer, Louis Robilliard eta J. Von Oortmersen irakasleekin lan egin zuen, lehen saria "Mention très bien"ekin eta organo espezialitatearen Goi Ikasketen Diploma Nazionalea eskuratu. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bi urteko beka eta Lartundo Fundazioarena ere jaso ditu.

Parisen, Eskualdeko Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean bost urteko hobekuntza lana egin zuen Noelle Spieth irakaslearekin, klabezineko goi mailako zikloaren amaieran Lehen Saria eta Musika Ikasketa Orokorren Diploma eskuratu. Piano espezialitatea J. Rouvier irakaslearekin egin zuen.

Ondoren, hiru urtez bere piano-teknika landu eta hobetu zuen Bartzelonan Edith Fischer eta Jorge Pepi irakasleen eskutik.

Trebakuntzako ikastaro ugari egin ditu M. Radulescu, J. Von Oortmersen, W. Jansen, D. Moroney, R. Requejo, Roberto Szidon edo Sakharov bezalako irakasleekin, besteak beste.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin lan egin du hainbat urtez. Kontzertuak ematen ditu bakarlari moduan, eta zenbait taldetan, organo-jotzaile, piano-jotzaile edo klabezin-jotzaile moduan. Bere errepertorioak garai eta estilo guztiak barne-hartzen ditu.

Psikologian lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU).

Gaur egun, Donostiako "Francisco Escudero" Kontserbatorioko irakaslea da.

Aramendiren hurrengo kontzertuak munduko txoko ezberdinetan ospatuko dira: Estatu Batuak, Japonia, Ingalaterra, Frantzia, Norvegia, Islandia, Eslovakia, Errusia, Alemania, Polonia, Luxemburgo, Suitza, Italia eta Espainia.



Sarah Pérarnaud Aramendi

Donostiakoa jatorriz, 2006an jaioa, 3 urterekin hasi zituen piano eta biolin ikasketak eta zazpirekin organokoak.

Baiona eta Donostiako kontserbatorioan ikasi du, Esther Mendiburu, Loreto F. Imaz eta Esteban Landartekin. Gaur egun, organoa ikasten du Louis Robilliard eta Loreto Aramendirekin.

Bai, Danja Lukanek Vienan eman dituen maisu-klase ezberdinetan, baita Michel Bouvardek eta Daniel Rothekek emandakoetan ere parte hartu izan du, "Quincena Musical"ek antolatutako amaierako kontzertuetan partaide izanik.

Zenbait lehiaketa irabazi du: Donostiako Hirikoa, Andoaingo Jaialdia, Musikari Gazteak eta Misiziert Jugend lehiaketa ere.

"Quincena Musical"en, Lubecken eta Orion kontzertuak eskaini ditu. Andoiaingo Jaialdiaren irekieran bakarlari moduan parte hartu zuen piano eta orkestrarako Beethovenen Rondoia interpretatuz.



Dorota Komorowska - violonchelo

Polonian jaio zen, musikari familia baten barruan. Varsoviako “Federico Chopin” Musika Unibertsitatean graduatu zen, Andrzej Wróbel eta Arnold Rezler irakasleen eskutik.

Varsoviako Ganbera-Operako biolontxelo bakarlaria da. Marie Curie-Skłodowska Unibertsitateko ganbera-orkestra, Lublingo Orkestra Fikarmonikoa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Concerto Orkestra eta Alfred Hause Tango Orkestrarekin lan egin izan du, azken honekin kontzertuak Europa eta Japonian ematen dituelarik.

Ganbera-jarduera handia garatzen ari da Serenata String Trío, Quinteto Galante, Sexteto Tschaikovsky eta Sotto Voce musika taldeetan, besteak beste. Donostiako Orfeoiko eta Aiete Musika Eskolako biolontxelo irakaslea da.

